

Bolivar Bilbon 1799-1801

Deia, 1983-06-27.

Hilabete barru, datorren uztailaren 24ean, ospatuko da munduan zehar, eta batez ere Bolivar-en sorlekuan, Caracasen, gizon harrigarri hau jaio zeneko bigarren mendeurrena.

Bilbon bizi izan zenean gaztetxo zen oraindik.

Bi aldiz egon zen oraindik hamar bat mila bizilagun zituen Bilbo hartan: lehenengoan 1799ko maiatzak 8, bide nabar, lehorreratu zen Santoñatik Madrilerara zijoala; bigarrenean, 1801garrengo martxoak 20, diligentziaz heldu zen bi urtez bizileku izan zuen Madriletik, eta 1802garrengo apirilaren 29 arte egon zen Bilbon, Frantziara egin zuen bidaia tarteko zela.

Zertara etorri zen eta zer egin zuen hemen?

Zertara: Patxi Abrisketak¹ dionez, Espainian bizi zen osaba bati iheska; baita Bilboko kaiera Caracastik heltzen ziren bere haziendako merkantziek (kakaoa, anila, tabakoa, azukrea, larrukiak eta kotoia) tratuak egitera, burnizko manufacturekin trukutzen bai zituan; eta, biografo batzu susma bezala, emaztegaiarekin egoteko asmotan ere.

Dena dela, hara emaztegaiarekin zerikusia duen zerbait: Bolivar-en bizilekua.

Uste denez, Bolivar-en etxebizitza Matadero (gaur Banco España) kalean 1690ean eraikitako jauregia izan zen. Salcedo familiarena izana eta Rochelt familiak erositako; suertatu zen Jose Rochelt eta Correo kalean, hurbil, bizi zen Pedro Rodriguez de Toro lagunak izatea, eta honen hiloba, Maria Teresa del Toro y Alaiza, zela Bolivar-ek laster esposatuko zuen andereñoa.

Ezkongaiak hurbil edukitzeko konponketa egokia dirudi.

Hau da gaur Jose Maria de Lecanda Rochelt-en uste borobila.²

Bolivar-ek Euskal herritik bidalitako hiru eskutitz konserbatzen dira: 1801eko bi, Bilboko postaetxean jarriak, eta hilabete beranduago, 1802garrengo urtarrilean Baionakoan jarria. Bosteun urte bete berriak zituen Bilbo honek hiru zubi zituan: Kolgantea, Zurezkoa, eta harriz eginga eta Bilboko harmarrian geratu dena. Bizkaian, Gernikako legea zen nagusi. Godoy-en zentralismoaren aurkako borroka eta Enziklopediako eragipenak sentituko zituen Bascongada-koen senidetartean.

Bolivar gaztea konturatu zen segurki arazo guzti horietaz.

Joango zen arbasoen herrira ere; lehen Simon Bolivar Amerikaratu aurretik utzi zuen etxea ikustera; gaur, eta jaio zeneko bigarren mendeurrena ospatzeko, Eusko Jaurlearitza hondakizunetatik jasotzen, berritzen, ari den etxea.

¹ "Bolivar en el Bilbao de 1801". Boletín Americano de Estudios Vascos. oct.-dic. 1978.

² "La Casa Palacio de Palma y Bolivar". Boletín de la Sociedad Bolivariana de Colombia. 1979.